

Olentzero Hernaniko etxe eta txoko guztietara etorriko da bihar

■ Ikastetxe guztietako haur, guraso eta irakasleak aterako dira gaur, Gabon kanta kantatzera ■ Dobera Euskara Elkarteak, Ttaria dantza taldeak eta San Juan Konpartsak Olentzerori harrera egingo diote, 18:00etan.

GABONAK iritsi dira, eta Olentzero ere herrira bidean da, hernaniarren eguberri giroan bere zakutik ateratako opari bat eskaintzera. Euskal Herrian sortutako pertsonaia da Olentzero. Batzuentzat ikazkina; beste batzuentzat arrantzalea; elizak azkeneko jentil bezala definitu zuen. Kontua da, Eguberri giroan derrigorrezko figura bihurtu dela guztiontzat. Gaur eta bihar batzuk bizkar gainean eramango dute, eta beste batzuk harrera egingo diote herrian eta beste batzuk kantatu egingo diote.

Ikastetxe guztiak

Ikastetxe guztietako umeak aterako dira, bihar, Gabon kanta kantatzera. Bakoitzak bere auzoan kantatuko ditu, ikasturtean ikasitako Olentzeroren kantuak.

Baserriz baserri


Ohitura da, Hernaniko baserrietan barrena joatea, Gabon kanta kantatzen. Ereñotzun

umeak eta helduak baserri base-ri ibiliko dira bihar arratsalde guztian zehar. Umeek buelta txikiagoa egingo dute, baina, helduek hasi Benta Berritik eta Lastaola bitarte dauden baserriak pasako dituzte. Doberak antolatuta, baita ere, Osiñagako baserri eta sagardotegiak pasatzen ditu urtero kuadrila batek.

Kalean zehar

Arratsaldean, kalean Olentzerori harrera egingo zaio 18:00etan, dantza eta kantuekin. Olentzerok kale buelta egingo du umei goxokiak emanaz eta gero, plazan Kantuz abesbatzak kantu batzuk kantatuko dizkio.

Gauean Gabonetako Erronda du Musika Bandak. □



Olentzeroa gurti gainean ibiltzen da urtero, Hernaniko Kaxkoan.

GAUR, ABENDUAK 23:

17:00etan: Kalejira, Musika Eskolako ikasleak

BIHAR, ABENDUAK 24:

09:00etan Langile ikastolako DBHko ikasleak, Sta Barbaran.

10:00etan Urumea ikastolako ikasleak, Kaxkoan.

10:45etan Elizatxo ikastolako ikasleak.

11:00etan Langile ikastolako LHko ikasleak, Kaxkoan.

13:30etan Ereñotzun umeak eta helduak, baserri baserri.

15:00etan Gabonetako erronda Osiñaga auzoan zehar.

18:00etan Olentzerori harrera, Gudariaren plazan.

TALDEKAKO TXAPELKETA

Tellerigain txapeldun

ATZO jokatu zen Larregain sagardotegian, Hernaniko Taldekako Txapelketako finala. Kaxkoa eta Tellerigain taldeak neurtu ziren kalitate haundiko finalean, eta Tellerigain taldeak irabazi zuen. Kantuan aritu ziren bertso-lariak: Tellerigaindik Eñaut eta Unai Agirre, Joxe Urdangarin eta Iker Osa; Kaxkotik Estitxu eta Ixiar Eizagirre, Jon Altuna Oxan, Jon Iraola, Jexux Mari Irazu eta Unai Muñoa. Entzuleen saria Unai Agirrek eraman zuen.

Bertso Lataren barruan, gaur, Bertsolamintza ikastaroa izango da, 19:00etan, Biterin. □

Portuko bidea irekita

KAXKOTIK portura jeisteko bidea irekita dago, obrak bukatu eta gero. Bide horretan, zubi haunditik Elizatxo ikastola bitartean itxita egon da kotxeentzat obrak egin bitartean. □

Ibon Fernandezek ihes egin du komisariatik

ITURRI ofizialek zabaldu dute, Ibon Fernandez hernaniarrak ihes egin du Baionako komisariatik, joan den ostegunean atxilotu eta gero. Itxura denez, Fernandezek, *tragaluz* batetik lortu du aldegitia, baina, ez dute beste xehetasunik kaleratu. □

EHIZA TXAPELKETA

Gerardo Berasa onena, lehen kanporaketan

ATZO jokatu zen ehiza txapelketako lehen fasea, eta Gerardo Berasa izan zen onena. Hurrengo fasea, datorren igandean, 09:00etan, Larregainen. □

Gabonak direla-eta, asteazkenean ez dago Kronikarik

Zaharren Egoitzan gabon kanta, txapelketak, diapositibak, bingoa eta Erregeak, Eguberrian

■ Urte Zahar gaueko eta Urte Berri eguneko Bingo Bereziak urtero ikusmin berezia pizten dute ■ Lau txapelketa ere jokatu dituzte: kartetan, igel jokua... ■ Errege bezperan Errege Magoak etorriko dira.

ZAHARREN Egoitzan prest daukate aurtengo Eguberriak, ekintzaz bete-bete eginda. Abenduaren 21an hasi ziren Santo Tomaseko txistorradarekin, eta Erregeak etorri arte, festa izango dute.

Txapelketak eta kantua

Aurtengo Eguberrietan ere badaukate non gozatua Sandiusterrin. Bihar, Gabon kanta izango dira, 17:00etan. Ostegunean, abenduak 26, Toka txapelketa, 17:30etan. Ostira-

lean, abenduak 27, Puntu txapelketa, 17:30etan. Larunbatean, abenduak 28, Diapositibak, 17:30etan. Abenduaren 30ean, Bote txapelketa, 17:30etan. Abenduaren 31ean, Igel txapelketa, 10:30etan; eta

Bingo Berezia 17:30etan. Urtarrilaren 2an, Bingo Berezia, 17:30etan. Azkenik, urtarrilaren 5ean, Erregeak etorriko dira 16:00etan; eta Seiko Urre txapelketa egingo dute, 18:00etan. □



emakumeek Hernaniko historiari egindako ekarpena

EMAKUMEENTZAT IKASTAROA

“Taldea partehartzea eta jende aurrean hitz egitea lantzeko”

Urtarrila eta otsailen: Asteartetan
Bi ordutegi: 14:30 - 16:30
19:30 - 21:30

Lekua: Biteri Kultur Etxea
Izen emateko epea: Urtarrilaren 13a

LOGOTIPO LEHIAKETA: Epea: 2003-01-10
“Berdintasun Kontseiluaren Logoa”

Oinarriak eta informazioa:

Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.:943 55 78 54



AITAN-ETXE TABERNA

EGUNEKO MENUAK

Larramendi 15 - Tel: 943 550046
HERNANI



TXIMELETA
OPARIK
Txirrita 10
943 55 23 95
HERNANI

DORRONSORO



OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

ZORIONAK eta
ONDO PASA

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L
Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18 -20120 HERNANI



Atzoko krossean parte hartu zuten ume guztiak, karrera hasi aurretik.

Eva Esnaola eta Jose Fran Cruz txapeldun

EVA Esnaola eta Jose Fran Cruzek irabazi zuten atzo jokotutako Karabelgo Kross herrikoia. Lau kategoriatako korrikalariak atera ziren, eta aurreko urtean baino parte-hartzaile gehiago izan ziren. Lau kategoriatako emaitzak honakoak izan ziren. Helduetan, emakumeetan: 1) Eva Esnaola, 2) Maite Civicos, 3) Arantxa Aldalur. Helduetan, gi-

zonezkoak: 1) Jose Fran Cruz, 2) Imanol Cruz, 3) Florian Garcia. Jubeniletan, 1) Jurgi Blanco. Infantilak, mutilak: 1) Haritz Garcia, 2) Iñaki Lopetegui, 3) Ander Etchezarreta. Infantil, neskek: 1) Eider Aldabe, 2) Laura Madina, 3) Tamara Torre. Alebin, mutilak: 1) Mikel Bon Wichman, 2) Manex Pagola, 3) Eneko Garin. Alebin, neskek: 1) Ane Villa-

verde, 2) Maddi Iradi, 3) Maria Vidal. Benjamin, mutilak: 1) Eneko Lujanbio, 2) Urko Antolin, 3) Eneko Elozegi. Benjamin, neskek: 1) Maider Martin, 2) Izaro Auzmendi, 3) Mirian Arrozpide. Beteranoetan: Florian Marcos eta Izaskun Santana; edadetueta: Arsenio Gonzalez eta Pilar Juanes.

Antolatzaileak oso gustora azaldu ziren karrera eta gero. □

ERRUGBIA

Hernanik galdu, Kakarraldoren aurka

HERNANIK ezin izan zion irabazi Kakarraldori, larunbatean, Plentzian jokotutako partiduan. Kakarraldok 52-17 irabazi zion hernaniarrei, eta horrek hurrengo partiduan irabaztera behartzen ditu. □

FUTBOLA

Hiru puntu, merezita

HERNANIK merezitako hiru puntu ekarri zituen atzo, Oñatitik. Loranen mutilek partidu serioa jokatu eta 1-2 irabazi zuten. Hernanik ez zion aukerarik eman Aloña Mendiri, eta 0-2 aurreratu ziren markagailuan, Lataburu eta Blanchen golei esker. Oñatiarrek penaltiz sartu zten gola, 5 minutu falta zirela. □

WATERPOLOA

Hernanik 7-9 galdu, Maristasen kontra

HERNANIKO mutilen bigarren taldeak galdu egin zuen atzo, Hernanin, Maristasen kontra jokotutako partidua. Hernaniarrek partidu ona jokatu zuten gutxi falta izan zitzaizen irabazteko. Hurrengo etsaia: Askartza. □

HITZ BITAN

IPUI KONTATZEA

Ipuiak 3-7 urte bitarteko umeentzat, ostegunean. Datorren ostegunean, abenduak 26, ipui kontatzea izango da Hernaniko Udal Liburutegian. Bi saio izango dira. Lehenengoa 11:00etan, 3 eta 4 urteko haurrentzat; bigarrena 11:45etan 5 eta 7 urtekoentzat. Hernaniko Udal Liburutegian.

SASKIBALOIA

Saskibalo jardunaldiak, gaur. Gaur Saskibalo jardunaldiak egingo dituzte Hernaniko Kiroldegian, 12-13 urteko gazteentzat. Honekin hirugarren saskibalo jardunaldia da aurten, eta helburuak dira, kirol hori indartzea eta datorren urtean talde bat konpetizioan hasia. Gaur, 10:00etatik 11:30etara eta 16:30etatik 18.00etara, Hernaniko Kiroldegian.

KIROLDEGIA

Ur-jolasak, gaur. Umeentzako ur-jolasak gaur izango dira Kiroldegian (ez atzo, Kronikak ekarri bezala), goizean zehar. 10:30etan LHko 1-2-3 mailak daude deituta; eta 11:45etan LHko 4-5-6 mailakoek izango dute aukera. Gaur, lehenengoz, gaztelu puzgarriak izango dira uretan, beste jolas batzuren artean.

Piszina itxita eta Kiroldegia irikita 23 eta 28an.

Abenduaren 23 eta 28an piszina itxita egongo da jendearentzat, baina, Kiroldegia zabalik mantenduko da (ez atzo jarri bezala). Kiroldegi osoa itxita egongo diren egunak: abenduaren 24, 25 eta 31ean, eta urtarrilaren 1 eta 6an. □



ESKERTZA

Maria Izagirre Esnaola

Abenduaren 11ean hil zen

Senitartekook eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera egun hauetan gurekin izan zeratenoi eta hiletara etorri zineten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.

Hernanin, 2002ko abenduaren 23an.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

ASTELEHENA

►Egunez: Gomez Kale Nagusia 14 ☎ 943 554892
►Gauetz: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 361556

ASTEARTEA

►Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
►Gauetz: Iturralde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395

KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	Taldeak	PELOTA
Goreng.	Aloña M.-Hernani	1-2
Emak. Liga	Zumaiako - Hernani	1-1
Gazt. Ohor.	Hernani - Martutene	
Kad.2.Mai	Sanpedrot.-Hernani	
ERRUGBIA		
Eusk. liga	Kakarraldo - Hernani	52-17
Jub. Eusk.	Atletiko SS - Hernani	7-26
Kad. Eusk.	Atletiko SS - Hernani	18-32
WATERPOLOA		
Mut. 2garr.	Hernani B - Maristas	7-9

Arrigoain jatetxea

Gabonak ondo pasa eta urteberri on, ahaztu gabe bere gogoz kontra gure artean ez daudenak.

Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97

HERNANI BIDAIAK
Urbietan etorb. 6 - HERNANI
☎: 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@teletel.es
Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.

ETXEBERRI TABERNA
Etxeberri 2. blokea - 943 551267
Egunero menuak. bazkariak eta afariak.
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkiegu bezero eta hernaniar guztioi.

S
A
N
S
O
L
E
K
E
G
I
ZORIONAK DENORI

OTORDU ATSEGINERAKO
Leku atsegina
Martindegi auzoa
Tel: 943 331572
943 553260

Aurtengo gabonetan Sansonategi zuekin.

ITXASPE ARRANDEGIA
ITXASPEtik gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu hernaniar guztioi.
Antziola 5 - Tel. 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 HERNANI

JANTZIDENDA LOHER
Emakume Gizon eta haurrentzat

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Elkano 1, (Eliza atzekaldean)
Tel. 943 555 003 - HERNANI

OKINDEGIA ANTZIOLA
Betiko lekuan gaude, eguneroko ogirik onena banatzen!
ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi.

ANTZIOLA KAFETEGIA

Ogia, pastelak, gozokiak, kafea, refreskoak,...

ANTZIOLA OKINDEGIA GOZOTEGIA KAFEA

Bi ordenagailu, jendearen erabilerarako.
Erakusketak.
MONTEBIDEO, 3 behea